

CAMPUS RS: JARDUTEKO PROTOKOLA

Aurretiatzko gogoetak

Dokumentu hau protokolo-eredu bat da, eta gaixotasunari eusten eta hura arintzen laguntzea du helburu, osasun-agintariek ezarritako jarraibideen arabera. Protokolo horrek aldaketak izan ditzake Osasun Sailak ezartzen dituen jarraibideen arabera.

Prebentzio-neurriak

- RS monitore guztiak osasun-gomendioen arabera ekipatuko dira.
- Derrigorrezkoa da umeak Zubietara iristerakoan maskarila jantzita eramatea.
- Haur bakoitzari tenperatura hartuko zaio eta eskuak garbituko zaizkio egunero Zubietako kirol-instalazioetara iritsi bezain laster. Familiei gomendatzen zaie haur bakoitza etxetik gel hidroalkoholikoko ontzi batekin etortzea (Realak gel hidroalkoholikoa izango du behar izanez gero).
- Taldeak:
 - Talde bakoitzak modu independentean funtzionatuko du, eta ez dira inoiz elkarrekin nahastuko.
 - Talde mistoak eta adinaren arabera bereiziak (2009, 2010, 2011 eta 2012).
 - Lehenengo egunean, haur bakoitzak botilatxo bat, kamiseta bat eta gymsack bat jasoko ditu, saio bakoitzean norberak erabiltzeko. Egunero etxera eraman beharko dituzte eta hurrengo egunean ekarri. Azken egunean baloi bana emango zaie haur bakoitzari.
- Harrera eta jasotzea:
 - Zubietako Z7 aparkalekuan (aldapatik errauskailuranzko sarbidea)
 - Harrera ordutegia: 8:30etatik 9:00etara.
 - Talde bakoitzaren harrera egiteko gune bereiztuak jarriko dira.
 - Haurrak ibilgailutik jaitsiko dira eta monitore batek bere taldeari dagokion karpara eramango ditu. Gurasoek ibilgailuaren barruan itxaron beharko dute tenperatura hartu eta dena ondo dagoela egiaztatu arte.
 - Biltzeko ordutegia: 13:45etik 14:00etara.
- Haur bakoitzak etxetik etorri beharko du ariketa egiteko jantzi egokiak jantzita. Aldagelak ez dira gaituta egongo.
- Haurrek motxila bat ekarri beharko dute hamaiketakoa, txubaskeroa eta egokitizat jotzen dituzten gainerako objektuak gordetzeko.
- Eremu komunak (komunak, etab.) eta materialen garbiketa eta desinfekzioa areagotzea, erabilera bakoitzaren aurretik eta ondoren.

- Aldian behin eskuak garbitzea jardueran zehar, gehienez ere 2 orduko tartearekin garbiketaren eta garbiketaren artean.
- Pertsona bat arduratuko da protokoloan aipatutako neurri guztiak betetzen direla gainbegiratzeaz. Pertsona horren zeregina izango da, soil-soilik, guztia ezarritako arauen arabera gauzatzen dela kontrolatzea.
- Zerbitzu medikoaren presentzia instalazioetan uneoro egotea.
- Egungo egoera dela-eta, eta ahal den neurrian, segurtasun-distantziak errespetatuko dira.

Egungo egoeraren ondoriozko beste aldaketa batzuk

- Ez da egongo autobus-zerbitzua. Hurrek beren kabuz joan beharko dute Zubietako kirol-instalazioetara.
- Ez da egongo gizonezkoen lehen taldearekin taldeko argazkia.
- Ez da egongo atezainentzako talde espezifikorik.
- Izena emateko epea bi astekoa izango da gehienez.
- Debekatuta dago klubekoak ez diren pertsonak instalazioetan egotea campusa ospatzen den orduetan.

Salbuespenezko neurriak

- Talde bateko parte-hartzaileetako batek sukarra edo COVID-19 gaixotasunarekin bateragarria den sintomatologia edukiko balu, Real Sociedad Fundazioak talde osoa etxera bidaltzeko eskubidea izango du.
- Haur batek COVID-19 gaixotasunarekin bateragarria den sintomatologia badu, taldetik isolatuko dute, jarduera utzi beharko du eta lehen mailako arretako zentro medikoarekin harremanetan jarriko da prozesuaren jarraipena egiteko. Haurrak kontaktu estua badu COVID-19 gaixotasunarekin bateragarria den sintomatologia duen pertsona batekin, modu bera jokatuko da.